

2025EKO ABENDUAREN 15EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko abenduaren 15ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 96 zenbakidun zerrenda, BERROGEITA ZORTZI MILA ZORTZI EHUN ETA HOGEITA BAT euro ETA HIRUROGEITA ZORTZI zentimokoa (48,821,68 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

II.-INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MANTENTZE ZERBITZUAREN KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA.-

2023ko apirilaren 3an sinatu zen Lazkaoko Udala eta Loyola Norte S.Lren arteko kontratua Lazkaoko instalazio elektrikoek mantentzea zerbitzua azken honek eman zezan.

Aipatu, kontratua bi urterako izenpetu zen, gehienez urtebeteko 2 luzapen egiteko aukerarekin.

2025ko martxoaren 10ean erabaki zen lehenengo luzapena gauzatzea eta 2026ko apirilaren 3an bukatuko da.

Honen aurrean eta Lazkaoko udalak kontratatutako zerbitzua beharrezkoa duenez, aho batez, honako hau erabaki du:

Lazkaoko Udalaren eta LOYOLA NORTE S.L. enpresaren artean izenpetutako kontratuaren urte beteko bigarren luzapena onartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

III- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 15-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea azaroaren 24tik astelehenetik ostiralera 6 ordutik 10 ordura. Onuradunaren ekarpena %35a da.

IV.- LAZKAOKO UDALAREN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL PLANGINTZA 2025-2027 PLANA.-

2025eko ekainaren 10ean Berdintasun Batzordean aurkeztutako eta landutako "Lazkaoko Udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plangintza 2025-2027" plana onartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, datorren gobernu batzorderako uztea erabakitzen du.

V.- KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lemiskatari.-

Lemiskata eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 2.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusitua zen.

2.000 € ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.03.334.00 partidatik ordainduko da.

Suthai batukadari.-

Suthai batukadaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusitua zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.06.334.00 partidatik ordainduko da.

VI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatarien bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritza sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko urrian martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatariek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei laugarren ordainketa egitea.

Guztira 4.477,50 €

VII.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Ansoategi elkarte.-

2026ko Astoxo egunez, XXV. enkarterrietako asto-arraza erakusketa eta lehiaketa antolatzeko 8.000€ko dirulaguntza proposatzen da.

Orain %50, hau da 4.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.09.334.00 partidatik ordainduko da.

Lazkaoko Baserritarren Tresna elkarte.-

Lazkaoko Baserritarren Tresna Elkarteari 2025eko aurrekontuan aurreikusita dagoen 3.000,00 €ko dirulaguntza ordaintzea proposatzen da.

3.000 € ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 471.01.412.00 partidatik ordainduko da.

- Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bostgarren ordainketa egitea.

Guztira 1.285,71 €

VIII.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

San Benito Ikastola.-

San Benito Ikastola Kooperatiba elkartearen eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako jarduerak aurrera eramateko 23.000 € eta mantenu lanerako 34.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %50, hau da 11.500 € jardueretarako eta 17.000€ mantenurako, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.02.323.00 eta 481.01.326.00 partidatik ordainduko dira.

IX.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du:

Aurrekontuetan kirol talde desberdinek urteko ohiko funtzionamendu eta egitasmoak diruz laguntzeko ondorengo dirulaguntzak onartzea, eta hauen bigarren zatia, hau da, %40, momentu honetan ematea.

Ondorengoa da onartu diren dirulaguntzen zerrenda:

Kirol elkarte	Laguntza osoa	Lehen ordainketa (% 40)
Lazkao Kirol Elkarte	16.000 €	6.400 €
Goierri Gorri Kirol Kluba	5.300 €	2.120 €
Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarte	2.500 €	1.000 €
Amalur Mendi Elkarte	2.500 €	1.000 €
Txindoki Atletismo Taldea	2.200 €	880 €
Ordizia Igeriketa Taldea	2.000 €	800 €
ORLOIJ Txirrindularitza Bultzatuz Elkarte	1.000 €	400 €

Aparteko Kirol eintzen antolakuntzarako laguntzak:

Kirol elkarte	EKINTZA	Laguntza osoa
Lazkaoko Antrzar Pilota Kirol Elkarte	Herriarteko pelota txapelketa	1.083 €
Lazkao Kirol Elkarte	Futbol inklusiboa topaketa Omenaldiko futbol topaketa	2.300 €

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aitor. Bashherri Eguneako dietak ez dira iritsi. Proposatzen da, alkatetzaz onartzea eta gero berri ematea.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.